

**HARD TRUTHS • Erresuma Batua - Espainia**

Mike Leigh (zuzendaria, gidoilaria)  
Marianne Jean-Baptiste (aktorea)  
Georgina Lowe eta Javier Méndez (ekoizleak)

# Mike Leigh: “Bizitzen ari garen garai latzen ikurra da protagonista”

SERGIO BASURKO

*Hard Truths* Mike Leigh-ek idatzi eta zuzendutako film dramatiko bat da, eta Marianne Jean-Baptiste du protagonista. Biak bietara izan dira prentsaurrean eguneko agerraldirik goiztiarrenean.

Filmean azaldutako gatazkei buruz galdetuta, Mike Leigh argi mintzatu da. “Protagonista bizitzen ari garen garai gogorren ikurra izan daiteke nolabait. Dituen arazoak unibertsalak dira. Filma ikusten duzunean berak laguntza behar ote duen galdetzen diozu zeure buruari, baina guk ez dugu erantzunik ematen. Milioika pertsonak bizi dituzte arazo horiek beren bizitzetan, beren harremanetan. Pelikula ikustetik kalerakoan, ikusleak bere kabuz hausnartu dezan nahi dugu, erantzunik guk geuk eman beharrean. Ez da osasun mentalari buruzko dokumental bat”.

Filmak bi zati nabari ditu. Lehen-dabizikoan Pansy sumindu bat aurkezten zaigu, eta bigarrenan haserre edo depresio horren jatorria garrantzuz zuzendariak; lehen zatia komediatik duen beste du bigarrenak dramatiko. Horren gainean galdetuta, “bizitza komedia bat da”, esan du Leigh-ek, “irrigarria, absurdua. Triste eta dibertigarria. Beraz, jendeak Pansyren erresumekin barre egiten badu ondo dago. Gero irribarrea desagertuz doa pixkanaka, baina filmak erreala izaten jarraitzen du, eta hori da garrantzitsua. Zeren, altxa dezala eskua hiletan batean barre egin ez duenak”.

Leighen iritziz, filmaren alderdi garrantzitsua “errealitate organiko bat” sortzeko izan duten gaitasuna da. “Hitz egiten ari da, isiluneak daude, eternaldiak eta ekintza asko... baina dena da errealitate jarraitu bat, gertatzen ari dena da pantailan agertzen dena”, zehaztu du zuzendari beteteranoak.



Mike Leigh zuzendaria eta Marianne Jean-Baptiste bere protagonista.

JORGE FUENBUENA

## A director who loves actors

Back in the 1990s, Mike Leigh and Marianne Jean-Baptiste collaborated on the award-winning *Secrets and Lies*. They have now teamed up again in *Hard Truths*, which the veteran British director is competing with for the first time at the San Sebastian Film Festival. Leigh said that working with the magnificent character actors in his film had been a joy and a privilege, and he described Marianne Jean-Baptiste as “one of the greatest of such actors.” Jean-Baptiste, who has accompanied Leigh to San Sebastián, described how she had developed her character, Pansy, from scratch and that looking back on it she almost felt that she was watching someone else. She was full of praise for the British filmmaker: “It was a gift to work with him again. He

loves actors, supports them and is extremely funny and nurturing.”

Leigh revealed that he had never planned the film in a simple schematic way: “it doesn’t work like a formulaic Hollywood film but develops organically,” and asked about whether Pansy could be a symbol of the hard times we are going through, he acknowledged that this could be the case but that the problems she has are widely experienced. “This is a universal human condition. But we don’t come up with any answers. We want you to go away from the film with your own hopes and aspirations for Pansy rather than us bringing the film to a comfortable conclusion. It is not a documentary about mental health”

“Familiarekiko komunikazioa oso arraroa zen mundu batean jaio nintzen. Horrek zerikusia du baldintza unibertsal batekin. Bi komunikazio mota ikus daitezke filmaren familietan. Bizitza komedia bat da, bizitza barregarria da. Triste eta dibertigarria aldi berean, horrelakoa baita bizitza. Ez nau kezkatzen jendeak barre egiteak. Kezkatzen nau filma sinetsgarria izateak eta publikoa identifikatuta sentitzeak”.

Bere antzeppen bikaina dela-eta, Jean-Baptiste protagonista izan da begirada guztien jomuga. “Marianne antzele ona izateaz gainera oso ona da pertsonaia erakitzen, grina handiz egiten du lan eta benetan izan da atsegina lan honetan halako antzeleekin kontaktu izana, gerora hori nabari egiten baita pantailan”, azaldu du Leigh-ek.

Marianne Jean-Baptiste, Pansy protagonistaren papera egiten duena, papera barneratzeko prozesua nolakoa izan den azaldu du: “Entseguetan denbora asko eman genuen, pertsonaia zerotik garatu genuen eta geruzak erakitzen hasi ginen pantailan ikusten duzuen lortu arte”.

Orduan, Mike Leigh-ek bere miresmena erakutsi die *Hard Truths* filmean parte hartzen duten aktoreei. “Ezingo litzateke pelikula hau filmatu aktore eta antzeppen apartak izango ez balitu. Aktore harrigarriak dira eta kaleko pertsona arruntak antzezteak gustatzen zaie. Gozamina da talde honekin lan egitea, oso lan aberasgarria”.

Marianne Jean-Baptistek saritua izateko espero duen galderari erantzun dio. “Lan zirrarragarria izan da, eta edozer gauza gerta daiteke. Baina horrela lan egitea berez irabaztea da. Uste dut paper honekin dagoneko irabazi dudala”.

Filmaren izenburua gaztelaniara itzultzeak zeresana sortu du, eta Mike Leigh bera arduratu da hori argitzeaz. “Konfiantza osoa dut espainiar itzultzaileengan, eta esan didate *Hard Truths* ez duela itzulpen erraza, beraz, *Mi única familia* titulua errespetatzen dut argia delako. Hitzez hitz itzuliko balitz, inor ez litzateke etorriko ikustera”.

JUNTOS PARA LA MEJOR PROYECCIÓN DIGITAL

KELONIK  
antaviana  
VFX & POSTPRODUCTION  
SHARP / NEC